77.zenbakia

A.B.E.

www.amaraberri.org
abmorlans@teleline.es

2005ko apirilaren 18a, astelehena

Editoriala

Aupa hemen gaude,Elaia, Antton,Naroa eta Iñigo. A.B.E hoberena emateko asmoz. Espero dugu gehienek erantzun ona ematea,eta ondo pasatzea.

El ruido y la furia de THE RAMONES en DVD

A uno le diagnosticaron serios trastornos de ansiedad. Otro fue chapero por hobby y murió de un pico de caballo. El tercero hizo convivir como pudo dos facetas: ultra-conservador y macarra vocacional. Entre ellos mediaron insultos, apuñalamientos y hasta cariños –los brutos también lloran-. Paletos, si, pero con extraordinaria imaginación.,Inventaron una insóita forma de arte: la "canción granada": tres minutos y dos acordes. Un goloso documental retrata ahora la intimidad de THE RAMONES, ásperos inventos del Punk-rock y del concierto bombardeo.

ALICIA ESPINAL

Erredaktoreak

Naroa, Iñigo, Antton eta Elaia

aurkibidea

1.- AZALA: The Ramones
2.- GURE ESKOLA: Elkarrizketa Oihanari
3.- ALBISTEAK: Nazioartea,Euskadi eta España.
4.- LUMAREN KILIMA: Deskribapen magikoa
5.- GU ERE IDAZLE: Matematika jokoa eta eguraldia.
6.- ENTRETENIGARRIAK: Write the names

Gure eskola

BIDE HEZKUNTZA

Gaur Angel eta Maite izeneko udaltzainak etorri dira eskolara. Seinaleak eta horrelako arauak erakuts dizkigute bizikletaz goazenean oztopoak saihesteko eskuz zein seinale grafikoak.

Elkarrizketa Ohianari

elkarrizketa

ELKARRIZKETA OIHANARI.

1-Zer moduz moldatzen zara hemengo ikasleekin ?
-Oraingoz primeran.
2-Zenbat denbora egongo zara hemen ?
-Apirilaren 26 arte.
3-Zeinen ordez zaude ?
-Iruneren ordez.
4-Zer ematen duzu ?
-Gizarte eta 2. Hizkuntza.
5-Ondo konpontzen al zara irakasleekin ?
-Bai.
6-Zenbat urte dituzu?
-27 urte.
7-Zer iruditzen zaizu ikastola hau?
-Oso interesgarria.
8-Zer nahiago duzu gehiago ematea Gizarte ala Gaztelera?
-Gaztelania.
9–Ikasleak langileak dira?
-Bai, denetatik dago.
10-Zein ikastola gustatzen zaizu gehiago hau ala bestea?
-Zalantzarik gabe hau.

albisteak

Nazioartea



Saharako eskoletan, lehen hezkuntzan 32.000 ikasle ari dira, eta bigarren hezkuntzan 600. Abel Ariznabarreta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuordea denbora asko zeraman Saharan eta metodo pedagogikoak lanean jartzeko ari da.

Nestor Elizondo

Espainia

Gizon batek ardoa eta alkola edan zuen gau osoan eta etxera joan zenean bere emaztea, 6 urteko alaba eta 2 urteko semeak hil zituen aizkora batekin buruan emanez. Berak esan dio poliziari burua galdu zuela.

Aia Kruse

Euskadi

Latxunbe Berri plazan izan ziren dantzariak eta karpak. Hango fandangoak dantzatu zituzten, bai Badajoz-ekoek eta bai Caceresekoek. Amonak ziren gehien bat dantzatzen zutenak.Jende asko agertu zen han. (Donostikoak, Hernanikoak...)

Azkenean hotza eta euria egiteaz gain urtero bezala ondo ospatu zen.

Olatz Pavón

DESKRIBAPEN MAGIKOA

Ni Ratikulin naiz. Saturno planetakoa.
Gaur misio batera bidali nau planetako buruzagiak Saturno jaunak.
Misioa zera da: 11 urteko ume baten barruan sartu behar naiz ikuskatzeko bere barrualdea. Eta bere burmuina suntsitzeko. (ume horrek Liher izena behar du). Amara Berri eskolara etorri naiz Liherren barruan sartzeko. Bi bide zeuden eta nik eskuineko bidea aukeratuko dut.
Oraingoz dena ondo doa, baina zer? Zer da hori? Ah,ah,ah, ah,!!!!!!!!
Bi poltsen barruan erori naiz.
Irakurriko dut mapa non nagoen.
Begiratu ondoren biriketan nengoela konturatu naiz.
Joe! Nik, garuraino iristeko bihotzaren ezker bentrikula hartu behar dut gero eztarriko peajea ordaindu eta igoko naiz begietaraino.
Begietara iritsi ondoren aterako naiz Liherren gorputzetikan. Gero, berriro, belarritikan sartzeko. Modu honetan, garunaren defentsetatik ihes egingo dut.
Bueno, orain belarrian nago. Bi arteriak gehiago igo eta Liher akatuko dut.
Goian nago iadanik.
Orain nire pistola ultra mega hiper sonikoa hartu eta.....
Bakarrik gatiloa sakatzea falta zait baina zer? Zer da hau? Kakahuete bat!!!
Ahaztu zait Liherrek ez duela burmuinik eta hemendik 5 segunduetara nere bila etorriko dira eeeezz!!!!!



BEÑAT MINGEZ

Gu ere idazle

MATEMATIKARI TXIKIEN TXOKOA

Hieroglifikoa

Osa ezazu taula hau
Honako zenbaki hauek erabiliz
1,2,3,4,5,6,7,8,9

Baldintza=ilaren zutabeko eta diagonalean emaitza berdina izan behar da.

Erantzuna=

492
357
816

Taula perfektua

Leire Berzosa

Eguraldia



Hiria

Tenperatura

Gasteiz	6 - 11 ºC
Bilbao	9 - 14 ºC
Donostia	9 - 11 ºC
Iruña	6 - 16 ºC
Baiona	7 - 16 ºC
Maule-Lextarre	5 - 16 ºC
Donibane Garazi	7 - 15 ºC

Astelehena, 18

Zerua oso hodeitsu egongo da eta euri arin-ertaina egingo du. Arratsalde-gauean maizago eta indartsuago eroriko da, Bizkaian eta Gipuzkoan trumoitsua izan daitekeelarik. Elur-maila gauean 1000-1200 metrora jaitsiko da. Mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, tarte gogorrekin kostalean eta mendi inguruetan.

Tenperatura minimoak gutxi edo moderatuki igoko dira eta maximoak egonkor mantendu edo gutxi jaitsiko dira.

Write the names of the shops in the picture.



1-Butcher's
2-Baker's
3-Greengroce's
4-chemist's
5-Theatre
6-Cinema
7-Hotel
9-Office building
10-Shoping centre
11-Super market
12-Gym
13-Bank
14-Newssagent's
15-Cafe
17– Post Office

Ainhoa Otxoa de Alda